

## SARIAK ETA ZERGAK

Garbiñe Ubeda  
Koldo Izagirre  
2021 urtarrilak 27-Otsailak 01

### IDAZLEON IRAKURKETA

Literatur sarien arauetan, oro har, agintzen eta publizitatzeko den diru kopurua murriztu egiten da "legez dagokion atxikipena" erantsita.

Idazleok gaizki hartu izan dugu hori, jukutria hutsa iruditzen zaigu 4.000 € direla azaltzea deialdietan, publizitatean eta hedabideetan, eta gero 3.400 € izatea poltsikorako.

Ogasunak asmatutako abusua iruditu izan zaigu.

### OGASUNAREN IRAKURKETA

Ogasunak interpretatzen du sari batera aurkeztea obra salgarri jartzea dela, saltzaile baten eta erosle baten arteko tratua dagoela sarietan (irabazlea eta saritzailea).

### IKUSPUNTU EKONOMIKOA

Espainiako Literatur Sari gehienak editorialek antolatutako dira, edo editorialek eta udalek elkar hartuta. Agencia Tributariak *Premio Planeta* hartzen da adibidetzat. Saritutako lana editatzeko eskubidea hartzen du beretzat, lanaren jabe egiten da diru baten truke: jarduera ekonomiko bat burutzen da saria ematean eta irabaztean, egileak saldu egiten du bere

lana eta saritzaileak erosi. Eta irabazi horri, edozein fakturari bezala, PFEZ delako zerga atxikitzen dio.

Gurean ere halakoxeak dira sari gehienak, saria obraren jabetzaren truke. Eta batzuetan, aspaldidanik, obraren jabetza ez ezik egile eskubideak ere beraientzat hartu izan dituzte (egileak mozkinik ez salmentatik).

#### SALBUETSITAKO SARIAK

Badaude beste sari batzuk, literarioak hauek ere, merezimenduzkoak edo izenda ditzakegunak, inolako trukerik gabekoak. Frantzian mordoxka dago: Femina, Renaudot, Interallié, Gongourt...

Sari horien antolatzaileek ez dira jabetzen saria irabazten duen obraz.

Gaztelaniaz *relevante* esaten zaie lege hizkeran, eta halaxe direlako, *exento* izendatzen dituzte zergatan.

Euskaraz sari garrantzitsuak ditugu dekretuz, eta garrantzitsuak izanik, *salbuetsiak* daude zergatan.

#### AGENCIA TRIBUTARIA DELAKOAREN DEKRETUA

Tendrá la consideración de premio literario, artístico o científico *relevante* la concesión de bienes o derechos a una o varias personas, sin contraprestación, en recompensa o reconocimiento al valor de obras literarias, artísticas o científicas así como al mérito de su actividad o labor, en general, en tales materias.

El concedente del premio no podrá realizar o estar interesado en la explotación económica de la obra u obras premiadas.

En particular, el premio no podrá implicar ni exigir la cesión o limitación de los derechos de propiedad sobre

aquéllas, incluidos los derivados de la propiedad intelectual o industrial.

Agencia Tributaria.k *Príncipe de Asturias* sariak aipatzen ditu eredutzat.

#### GURE FORU DEKRETUAK

Araba: Norma Foral 6/2006. 9. Artikulua, 7,8 eta 9 puntuak.

Bizkaia: Norma Foral 13/2003, actualizado a 04/12/2020.

Titulo II, 8 eta 9 puntuak.

Gipuzkoa: 33/2014 Foru Dekretua. II titulua. A. Artikula, 1,2,3,4,5,6 puntuak.

Nafarroa: Decreto foral legislativo 4/2008. Titulo II. Capítulo I. Artículo 7. G eta H puntuak.

Arau eta dekretuok denak berdintsuak dira, Agencia Tributariaren artikuluetatik kopiatu-egokitu dituzte.

Hona hemen zer dioen Gipuzkoakoak:

8. artikulua.

1. b) Literatura, arte edo zientzia sari *garrantzitsua*: pertsona bati edo batzuei inolako kontraprestaziorik gabe ondasunak edo eskubideak ematea obra literario, artistiko edo zientifikoaren balioa edo arlo horietan oro har egindako jarduera edo lanaren meritua saritu edo aitortzeko.

2. Sari-emaileak ezin du saritutako lana edo lanak ekonomikoki ustiatu, ez eta horretan interesatuta egon ere.

Zehazki, sariak ezin du berekin ekarri edo exijitu saritutako lanaren edo lanen gaineko jabetza eskubideak,

jabetza intelektual edo industrialetik eratorritakoak barne, lagatzea edo mugatzea.

Espainiako Agencia Tributariari kopiatzeko hasi ezkererako aipa zitezkeen Euskadi Sariak eredu gisa –*Principe de Asturias* eta *Premio Cervantes*.en parekoak direnez–, baina Nafarroako dekretuan bakarrik ageri da eredurik, *Príncipe de Viana* eta *Príncipe de Asturias* (Sari hori ez da Nafarroakoa, baina sari hori jasotakoak Nafarroan kotizatzen badu, ez du inolako zergarik ordaindu behar jasotako diruagatik).

Ez ote dago sari garrantzitsurik euskal literaturaren sisteman?

Bitxi samarra da kontu hau.

## EUSKADI SARIAK

Euskadi Sarietan ez dago inolako tratu komertzialik. Jaurlaritzak ez dauka interesik saritzen dituen lanak beretzeko. Eta halakorik balu nekez lortuko luke trataturik, saritutako lanak aurreko urtean editatzen direnez: jabetza eta eskubide komertzialak, editorialenak dira.

Alabaina, Euskadi Sarien arauetan hauxe ageri da:

Euskadi literatura sariak 18.000 euro **gordinez** hornituta daude modalitate bakoitzeko. Diru-kopuru hori saritutako lanen egileei emango zaie.

Testua ilun samarra da: 18.000 euro *gordinez* hornitua bada, ez dela kopuru *garbia* adierazten du (zergarena kendu behar), baina "diru kopuri hori" emango omen zaie irabazleei.

Jo dezagun gaztelaniara, badaezpada:

Los premios literarios Euskadi estarán dotados con 18.000 euros **brutos** para cada una de las modalidades, que

serán entregados a las y los autores de las obras que resulten premiadas.

Gardenago dago erdaraz. Sari bakoitza hornitzeko jartzen den diru kopurua *brutoa* da, *gordina*: irabazlearen eskura baino lehen *neto* izatera pasako da, *garbia*. Brutoak zergaren ausikia nozituko duela dakienarentzat behintzat ez dago iluntasunik, 18.000 € horietatik 15.300 izango dira irabazlearentzat, eta 2.700 ogasunarentzat.

Literatur Sariak eta Fiskalitatearen arteko harremanez diharduten gabinetean blogetan ibili gara miaka, eta hizkera kontuak gorabehera, antzekoa diote denek.

National-Nederlanden Españaren testua hartu dugu, bararenak dira belztutako esaldiak:

Afortunadamente, existen premios libres de impuestos. Para que así lo sean, **la entidad que lo adjudica tiene que dirigirse a la Agencia Tributaria para solicitar que se incluya en un listado de premios exentos**. Para que se beneficie de esta exención, tiene que cumplir el requisito del punto anterior: **que no exista un uso comercial posterior de la obra ganadora**. Si la Agencia Tributaria comprueba que es así, la incluirá dentro de ese listado y **todo lo ganado estará libre de impuestos**.

Euskadi Sarian, aipatu dugun bezala, saritzaileak ez du ustiaketa komertzialik egiten sariaren truke, ustiaketa editorialek egin dute aurretik, eta hala segituko dute egiten ondotik ere.

Zergatik ezartzen zaio atxikipena saritzat jarri den kopuruari, sariak berak zergetatik salbuesteko ezaugarri guztiak izanik?

Oraindik ez diotelako Ogasunari jakinarazi salbuetsitako sarien artean dagokeela?

Utzikeriagatik ote gaude sari *garrantzitsurik* gabe gurean?

## URTEETAKO ABUSUA

Irun Hiria eta Donostia Hiria sariak Kutxa Fundazioak antolatzen ditu.

1974tik 2020 arte, jokabide bitxia izan du erakunde horrek (Obra Social).

Deialdiko arauen azken puntuaren ondoren, ohar argigarri hauxe ezartzen zuen:

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako salbuespenari esker, Gipuzkoako egoiliarrentzat sari hauek ez daude PFEZ zergari atxikita.

Baina honela zioen saritutako obraren jabetzaz (Sarean daude 2019ko deialdiaren arauak):

Kutxa Fundazioak beretzat gordetzen du, eksklusiban, (...) gehienez ere sei hilabeteko epearen barruan, lan sarituak argitaratzeko eskubidea.

Nola liteke Gipuzkoako Foru Aldundiak salbuetsi izana sariok, argi zegoenean ez zutela betetzen Foru Dekretuak salbuetsiak izateko ezartzen duen baldintza?

Sari-emaileak ezin du saritutako lana edo lanak ekonomikoki ustiatu, ez eta horretan interesatuta egon ere.

Zehazki, sariak ezin du berekin ekarri edo exijitu saritutako lanaren edo lanen gaineko jabetza eskubideak, jabetza intelektual edo industrialetik eratorritakoak barne, lagatzea edo mugatzea.

2020an aldatu egin zuten araudia:

Kutxa Fundazioak ez du saritutako lanak ekonomikoki ustiatu nahi, eta egileek haien jabetza eta jabetza intelektualaren gaineko eskubide moral eta ondare-eduki

guztiak gordetzen dituzte. Hala ere, saritutako lanen egileek baimena ematen diote Kutxa Fundazioari, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, lan horien ale kopuru mugatua argitaratzeko, irabazi asmorik gabe, gaur egun indarrean dagoen edozein euskarritan eta irabazleen aldarrikapena egiten denetik hasita gehienez ere 6 hilabeteko epean.

“Ale kopuru mugatua” zenbatekoa den ez dakigu.

“Edozein euskarritan” horrek zer pentsatua ematen du.

Orain Kutxa Fundazioak ez dauka interes ekonomikorik, baina interesik bai, badu obraren gainean. Eta publikatu egiten du paperean zein beste euskarritan.

Interes horrek, ez ote du hausten Foru Dekretuak dioena?

Ba ez, ez du hausten:

33/2014 Foru Dekretua. 8. artikulua, 2. puntua:

Obraren zabalkunde publiko hutsak ez du baldintza hori urratuko irabazi asmorik gabe eta gehienez sei hilabeteko epean egiten bada.

Ohar hori bera ageri da Arabako eta Bizkaiko Norma Foraletan. Nafarroako Decreto Foral Legislativo-n ez da horrelakorik aipatzen. Espainiako Agencia Tributariaren

Hala ere, dudarik ez dago Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egileari eskubide moralak (gutxienez) kentzen zaizkiola, Norma Foralek ez diotelako inolako kontrolik bermatzen egileari Kutxa Fundazioak liburu kopuru horri emango dion tratuaz diseinuan, azalean, kontrazalean, testuaren orriratzean, sarreraz (baldin badu), zabalkundean...

Espainiako legeak, berriz, honela dio Agencia Tributaria-ren ahotsean:

En particular, el premio no podrá implicar ni exigir la cesión o limitación de los derechos de propiedad sobre aquéllas, incluidos los derivados de la propiedad intelectual o industrial.

No se considerará incumplido este requisito por la mera divulgación pública de la obra, sin finalidad lucrativa y por un período de tiempo no superior a seis meses.

Bitxia da, bai, nolako seta daukaten saritzaileek obra literarioak dohainik hedatzeko. Literaturaren onean ari dira noski. Egilearen onean ere bai noski... hor nonbait.